



2manydjs taldeak emango dio amaiera Bilbao BBK Liveri

Bilbao BBK Live itxi du aurten **uztailaren 11, 12 eta 13an Kobetamendiko ingurune natural paregabean** egingo den hamalagarren ediziooko kartela. **The Strokes**, mende honetan rocka berpiztu izanaren errudunak; **Liam Gallagher**, garai guztietako *frontman* esanguratsuenetako bat; **Thom Yorke Tomorrow's Modern Boxes**, Radiohead taldeko liderraren proiektu paraleloa; **Rosalía**, Coachellan izandako mundu mailako arrakastatik bueltan; **Weezer**, Espainian eskainiko duen emanaldi bakarrean; **Suede**, inoiz baino indar handiagoarekin, eta Damon Albarnen supertaldea, **The Good, The Bad & The Queen**, bestekak beste. Horiei dantzalekuetako pistak lehertzen maisuak diren **2manydjs** batu zaizkie gaur, baina ez da taldea Kobetamendin izango den lehen aldia, 2013an eta 2016an eskainitako emanaldiek oroitzapen ezin hobea utzi zuten eta oraingoan jaialdiaren edizio erakargarri eta harrigarrietako bat izango dela dirudien hamalagarren hitzordu honi amaiera emateko etorriko dira. Aurtengoan zuzeneko 95 emanaldi izango dira 5 eszenatokitan banatuta, 25 foodtruck inguru, elikadura gustu eta premia guztientzat, 10.000 kanpaleku baino gehiago mendian bertan eta zerbitzu guztiekin, doako autobusak gunera iristeko, merchandising finena eta diseinatzaile independenteen lanak eskainiko dituen market oso zaindu bat eta askoz ere gehiago Bilboren ikuspegi ederrenak dituen gunerarekin batera.

Horretaz gain, bertan izango dira **HOVB** Vienako bikote elektronikoa *Rocco* izeneko laugarren diskoarekin eta emanaldi guztietan izaten dituzten ikusizko ikusgarriekin; **Biig Piig**, abiadura txikiko jazzaren harribitxiz betetako eta hip hopeko beat errepikariz lagundutako proposamen batekin, zeinetan Jess Smith trebezia mugitzen den ingelesez zein gaztelaniaz eskainitako zuzeneko emanaldietako lirismoari esker; **Delaporte**, musika elektronikoa eta popa, doinu infekziosoak eta erritmo tropikal eta afrikarrak ezin hobe nahasten dituen bikote italiar-espainiarra eta beren lehenengo luzea, *Desde anoche*; eta **Sua**, jaialdira ate handitik iritsi den Bizkaiko taldea, Gaztea irratiko maketa lehiaketa irabazi ostean, aurretik Berri Txarrak eta El Columpio Asesino bezalako talde handiek egin zuten bezala. **Las Ligas Menores** taldearen emanaldia larunbatera pasa da.

Hala, kartela itxita dago, berriz ere egungo artista onenen sailkapen bat eskaintzeko helburuari hutsik egin gabe. Iraganean egungo musikaren oinarriak ezarri zituzten eta aldi berean garai berriei egokitzen jakin duten sortzaileentzako gunerak, oraingo musika panoramaren isla eta musikaren etorkizuna eraikitzen ari diren soinuak eta izenen aldeko apustu bat. Horien artean, nabarmentzekoak dira proposamen oso anitzak; adibidez, **The Blaze**, une honetako proiektu elektronikoa estimulatzaileenetako bat; **Hot Chip**, Britainia Handiko pop elektronikoa ezinbesteko erreferentzia; **Idles**, punk olatu berria; **Brockhampton**, bere proposamen birrintzailearekin eszenatokietara iraultza ekarri duen hip hop taldea; **Nils Frahm**, urteko lan onenen zerrendan pianoarekin eta sintetizadoreekin eginiko disko bat sartzea lortu duena; **Modeselektor Live**, 90eko hamarkadatik azalberritu egin dena eta elektronika globala moldekatu duena; **Vetusta Morla**, joaten den leku guztietan aretoak lehertzeraino betetzen dituen talde nazional ezinbestekoa; elektronika lezioak ematen 35 urte daramatzan **Laurent Garnier**; **Vince Staples**, aro berriko hip hoparen eta raparen funtsezko figura; eta abangoardiako hainbat gunerarekin batera, esaterako, **Basoa**, jaialdiko elektronikaren basoa; **Lasai**, abiadura



txikian dantza eginez gozatzeko txoko bat, eta askoz ere gehiago 2019ko Bilbao BBK Live esperientzia sentsorial bikainean.

BILBAO BBK LIVE
11, 12 y 13 de julio de 2019
Kobetamendi, Bilbao

Osteguna 11

LIAM GALLAGHER/ THOM YORKE TOMORROW'S MODERN BOXES/ MODESELEKTOR live/ NILS FRAHM/
VETUSTA MORLA/ JOHN GRANT/ KHRUANGBIN/ NICOLA CRUZ live/ SLEAFORD MODS/ YAEJI/ THE
VOIDZ/ BAIUCA/ BELATZ/ BIIG PIIG/ DELAPORTE/ DERBY MOTORETA'S BURRITO KACHIMBA/
ERABATERA/ IDER/ MR. K/ MS NINA/ SUA/ THE PSYCHOTIC MONKS

Basoa: HONEY DIJON/ MIDLAND/ OCTO OCTA/ COURTESY/ KETIOV

Lasai: CASPER TIELROOIJ/ ELENA COLOMBI/ FORT ROMEAU/ MIRAVALLES/ ORPHEU THE WIZARD

Ostirala 12

THE STROKES/ ROSALÍA/ SUEDE/ THE BLAZE/ BROCKHAMPTON/ IDLES/ OMAR SOULEYMAN/
PRINCESS NOKIA/ SECOND/ SLAVES/ ANARI/ ANTIFAN/ CECILIO G/ DJAKE/ GEORGIA/ JONATHAN
BREE/ LESTER Y ELIZA/ MOURN/ MUEVELOREINA/ OLATZ SALVADOR/ OSO LEONE/ UNIFORMS/ ZAZA

Basoa: LAURENT GARNIER/ BICEP dj set/ DJ SEINFLED/ MOXIE/ ALVARO CABANA

Lasai: DJOHNSTON/ JULIAN FALK/ MISLAV/ MUEVELOCUMBIA/ OLIVIA

Larunbata 13

WEEZER/ THE GOOD, THE BAD & THE QUEEN/ HOT CHIP/ VINCE STAPLES/ 2MANYDJS dj set/ CUT
COPY/ HVOB live/ KERO KERO BONITO/ NADIA ROSE/ NATHY PELUSO/ SHAME/ BOY AZOOGA/ CALA
VENTO/ CUPIDO/ LAS LIGAS MENORES/ NØGEN/ PERRO/ PONY BRAVO/ SERRULLA/ VIAGRA BOYS

Basoa: JOHN TALABOT/ TODD TERJE dj set/ DJ DUSTIN/ TAMA SUMO/ ALICIA CARRERA

Lasai: FENNA FICTION/ NINJA/ NUEL/ PHUONG-DAN/ SACHA MAMBO

Bonua: 160€ + gastuak.

Bonua + Kanpina: 175 € + gastuak.

Eguneko sarrera: 62 € + gastuak

Bonua epeka ordain daiteke.

Promo Kutxabank:

Aurretik geneukan deskontua agortu ondoren, atzeratuta zoaztenek beste aukera bat izango duzue. Kutxabank txarteekin ordaintzen diren 3 egunetarako bonua, lehenengo 350 bonuei aplikatuko zaie aplikatutako zaie, 28 euroko deskontua, eta txartel bakoitzeko bonu bati gehienez. Kutxabanken zerbitzu orotako kutzazainetan edo [hemen](#) besterik ezin da eskuratu.

Salmenta:
bilbaobbklive.com